

## PRAKTIKAKO KLASEETAKO APUNTEAK

### Heriotza / Bizitza

- Aristotelesek zioen moduan, bizirik mantentzeko aukera bakarra ugalketa da.
- Bizitza oso polita eta ikaragarria da, hori egiten duten osagaiak dauden bitartean, baina elementu horiek ez daudenean, bizitzak ez du inolako zentsurik eta konponbide bakarra heriotza da.
- Bizitzaren luzera telomeroen mozketaren abiadurak mugatzen du. Baina zenbat eta telomero luzeagoa eduki bizitza ez da luzeagoa izango, horren azalpena hurrengokoa da: gauza da, telomeroen mozketak azkarragoa bada, bizitza motzagoa izango dela, aldiz, telomeroak mozteko orduan motel egiten badute, urte gehiago bizi.

### Historia klinikoa

Historia klinikoan, jaiotzen garenetik eta lehenengoko txertoak jasotzen ditugunetik heriotzara heldu arte izandako osasun arazo guztien datuak agertzen dira. Dokumentu hauek beti eguneratuak egon behar dira eta hutsunerik gabekoak. Pazienteak ahalbidetutako informazioaren datuak ondo hartzea giltzarria da diagnostiko zehatz bat burutzeko. Gainera, espezialistak historia klinikoa gehiago begiratuko balute diagnostiko azkarragoa egingo lukete.

Historia klinikoarekin zerikusia daukaten ezaugarriak hurrengokoak dira:

- Historia klinikoetan agertutako paziente batzuen kasuak ikerkuntza klinikoetarako erabiltzen dira, beti ere, pazientearen identitatea isiltasunean mantentzen.
- Ospitaletan, zein klinika pribatuetan behartuta daude historia klinikoak gordetzera.
- Familiako medikua erretiratzeko denean, berak zeraman historial klinikoak ezin ditu botatu, behintzat 25 urtez gorde behar ditu edo pazienteari eman.
- Medikuek historial klinikoan egindako anotazioak ez dizkio pazienteari erakutsi behar.
- Hildako baten historial klinikoaren kasuan, familiakoak eskubidea daukate eskatzeko eta medikuak emateko beharra daukate, aldiz, hildako pazienteak zertifikaturen bat idatzita usten badu, esanez, familiako kide honi historial klinikoa ez entregatu, orduan, idatzitako hori bete behar da.
- Alderdi ekonomikoari begira, klinika pribatu bateko aseguradora ordaintzeko orduan, historial klinikoa eskatu ohi dute, berez, ez da beharrekoa ematea, baina normalean egiten da.

Gaur egun, historial klinikoa modu elektronikoan edukitzeko aurrerapenak egin dituzte eta jada proiektu hori martxan dabil, beti ere, pazientearen identitatea eta pribatutasuna kontuan hartuz. Baita ere, historial klinikoa pazienteak nahi duen hizkuntzatan agertu daiteke, baina normalean gaztelaniaz egoten da.

### Sekretu profesionala

Medikuak edo pazienteekin kontaktuak lan egiten dituzten langile guztiak sekretu profesionala mantentzeaz arduratu behar dira, azken finean, pertsona horren pribatutasuna gorde behar da nahiz hil eta gero, bestela, legearekin arazoak edukiko ditu eta ez zen lehenengo aldia izango.

Hasteko, mediku batek ezin da sartu paziente baten historial klinikoan kuriositatea daukalako, salbuespen bezala, medikuak kasu horretan lan egitea. Baita ere, horrelako profesional batek lan egiten duen lekuan

isiltasun hori ez bada gordetzen, informatu beharra dauka, bestela sekretu profesionalaren aurka egiten dago. Beti ere, ospitaleko zuzendariak pazientearen identitatearekiko isiltasuna gorde behar dela gogorarazten eta mantentzen egon behar da.

Adibidez, aurpegian tumore bat daukan pazientearen kasuan, froga bezala, pazientearen aurpegiari argazki bat ateratzen bazaio, lehenik eta behin baimena eskatu behar zaio eta ezekoa ematekotan hori onartu. Beste kasu bat, pertsona publikoak dira, hau da, Europako presidentek, hauen historial klinikoaren isiltasuna ere mantendu behar da, baina, batzuetan pertsona hauen osasunari buruzko datuak ematen dituzte berrietan.

Noiz hautsi daiteke sekretu profesionala?

1. Gaixotasun kutsakorren aurrean (gainerako jendearen bizitza jokoan baitago)
2. Pazientea hiltzean, forense medikuak *causa de la muerte* jarri behar duenean
3. Beste pertsona batean eragina badauka
4. Umeetan, adineko jendean, emakumeetan... tratu txarrak ematen badira
5. Legean, epaileak deitzen dizunean, adibidez: peritoak, mediku forensek. Hauek datuak zehatz-mehatz adierazi behar dituzte.
6. Pazienteari egindako analisiak edo frogak, berari azaldu behar zaizkio, baina modu ulergarri batean